

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

MUGIKORTASUNAREN ETA ESPAZIO PUBLIKOAREN SAILA

Administrazio Zerbitzua

Vitoria-Gasteiz hirian bus elektriko inteligentea (BEI) kudeatzeko modua zehazten deneko udalekotze-dosierraren behin betiko onespena

Hau erabaki zuen Udalbatzak 2021eko urriaren 22an egindako ohiko osoko bilkuran:

Lehena. Azterketa Batzorde Bereziak 2021eko ekainaren 8an onetsi zuen eta udalbatzak 2021eko uztailaren 23ko ohiko bilkuran aintzat hartu eta behin-behineko onespena eman zion oroitidazkiaren jendaurreko erakustaldian aurkeztutako alegazioak ezestea.

Bigarrena. Behin betiko onespena ematea bus elektriko inteligentea (BEI) kudeatzeko modua zehazten deneko udalekotze-dosierrari, hots, kudeaketa hori Gasteizko Hiri Garraioak SA udal sozietate anonimoak (TUVISA) egiteari, Azterketa Batzorde Bereziak 2021eko ekainaren 8an onetsi zuen eta udalbatzak 2021eko uztailaren 23ko ohiko bilkuran aintzat hartu eta behin-behineko onespena eman zion oroitidazkian —prezioen proiektua barne— jasota dagoen moduan.

Erabaki honen kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Nolanahi ere, alde zuzenetik aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori espresuki edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, ebazpen espresua ematen bada, bi hilabeteko epea izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkezteko, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, berariazko araudiaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.

Dosierra aipatutako epean kontsultatu ahal izango da, San Martineko bulego teknikoetan —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25; Vitoria-Gasteiz—.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko azaroaren 12an

Mugikortasunaren eta Espazio Publikoaren administrazio burua
JAVIER LARRIETA CENDEGUI